

Gratu Amaierako Lanen ebaluaziorako irizpideak

Donostiako Informatika Fakultateko Gradu Amaierako Lanen araudi orokorraren arabera lanen ebaluazioa ondoko irizpide orokorren arabera egingo da::

1. Ondoko **trebetasunak landuko eta egiaztatuko** dira lanaren garapenean:

- Lanen aurreikusitako **helburuak erdieste**a, hura garatzerakoan agertutako zailtasunak bere kabuz gaindituz.
- Egin beharreko **lana planifikatzea eta kudeatzea**.
- **Memoria bat modu egokian idaztea**, eginiko lana zehatz jasotzen duen txosten bat sortuz. Memoriak ingeniari-tza-lan bati egokitutako egitura izango du, eta estiloa, berriz, zehatza eta formala izango da.
- Eginiko **lana jendaurrean azaltzea** eta defendatzea.

2. **Epaimahaiak kalifikaziorako kontuan hartuko ditu:**

A. Zuzendariak ebaluatzen ditu berak ezagutzen dituen alderdiak, epaimahaiak nekez balora ditzakeenak :

- **Ekimena eta autonomia**.
- **Gaitasunak komunikazioan**, zuzendariarekin edota beste batzuekin.
- **Lanaren kudeaketa** (planifikazioa, erantzukizuna, konpromisoa...).

Atal honek azken notan %25eko haztapena izango du.

B. Epaimahai osoak ebaluatzen ditu:

- Egindako lanaren **irismena eta zailtasuna**.
- Aurkeztutako **memoriaren kalitatea** (kontuan hartu idazkera eta aurkepena, metodologiaren deskribapena, aipatutako bibliografia...).
- **Defentsaren kalitatea** (kontuan hartu ahozko komunikazioa, erabilitako materiala, gaitasuna galderak erantzutean...).
- Bestelakoak.

Atal honek azken notan %75eko haztapena izango du.